

2021eko abendua

ERREENTERIAKO HIZKUNTZA- ANIZTASUNAREN MAPA Datuen azterketa

Immigrazioko biztanleriaren
jatorriaren arabera hurbilketa



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea



Egileak: Xabier Aierdi, zuzendaria; Belen Uranga, Isabel Godinez (Soziolinguistika Klusterra)

AURKIBIDEA

1	SARRERA.....	3
	Ohar metodologikoa	2
2	Jatorri atzeritarreko biztanleriaren ezaugarriak Erreterian	3
2.1	Giza taldeak, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera	3
2.2	Jatorri atzeritarreko biztanleria, sexuaren arabera	5
2.2.1	Datu orokorrak: migrazioaren feminizazioa	5
2.2.2	Banaketa sexuaren arabera, auzoka	7
2.3	Jatorri atzeritarreko biztanleria, adinaren arabera	8
2.3.1	Datu orokorrak.....	8
2.3.2	Banaketa sexuaren arabera, auzoka	9
3	ERRETERIAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNA JATORRIAREN ARABERA.....	11
3.1	Jatorri atzeritarreko biztanleen jatorri-herrialdeak	11
3.2	Emari handieneko 20 jatorri-estatuak	12
3.3	Hiztun-kopuru txikiko jatorri-estatuak.....	13
3.4	Espainiako estatuan jatorria dutenak	14
3.5	Erreterian hitz egin daitezkeen hizkuntzak	15
3.6	Gaztelania ofiziala duten jatorri-herrialdeak.....	17
4	HIZKUNTZA KOMUNITATE NAGUSIEN PLANOAK	18
4.1	Jatorri atzeritarreko biztanleen presentzia, auzoaren arabera	18
4.2	Hizkuntza-komunitate nagusien dentsitatea, auzoaren arabera	20
4.2.1	Arabiera eta amazigera (Maroko eta Aljeria)	20
4.2.2	Errumaniera (Errumania).....	21
4.2.3	Portugesia (Brasil eta Portugal).....	22
4.2.4	Ukrainera (Ukraina)	23
4.2.5	Jorubera, igboera, hausa eta ingelesa ... (Nigeria).....	24
4.2.6	Frantsesa (Frantzia).....	25
4.2.7	Urdu eta punjabera (Pakistan)	26
4.2.8	Mandarin txinera, (Kantonera)	27
4.3	Laburpena	28
4.4	Hiztun-kopuru txikiko hizkuntza-aniztasun handia	30
5	ONDORIOAK	31
	Etorkizuneko erronka	33
	BIBLIOGRAFIA.....	34

1 SARRERA

Erreterriako Hizkuntza-aniztasunaren mapa Soziolinguistika Klusterrak Erreterriako Udalaren eskariz egindako azterketa da..

Proiektuaren helburua euskara, gaztelania eta ingelesa ez diren Erreterriako Hizkuntza-aniztasunaren mapa osatzea da, izan ere, hiru hizkuntza horiek tratamendu berezitua eskatzen dute, euskarak eta gaztelaniak euren izaera koofizialagatik, eta ingelesak hezkuntza-sistema formalean eta ez-formalean duen pisuagatik.

Helburu hori kontuan izanda, dokumentu honetan azalduko diren datuak honakoak dira: sarrera-atalean, azterketaren ohar metodologikoa eskainiko da. Bertan azpimarratu da gaur egun ez dagoela hitz egiten diren hizkuntzen inguruko datu-bilketa formal eta protokolorik, eta, beraz, azterketa honetan hipotesi-mailako hizkuntzen presentzia aurreikusiko dela, beti ere, ikerketa kualitatiboek baieztatu beharrekoak izango direlarik.

Bigarren kapituluari Erreterriako biztanleriaren ezaugarriak deskribatuko dira, arreta jarri azken urteetako Erreterriara heldutako immigrazioaren joera orokorretan, jatorri atzerriarreko biztanleriaren portzentajeetan eta sexuaren eta adinaren arabera banaketan.

Datuok hizkuntza-aniztasunaren sortzaile den jatorri-estatuaren arabera aztertuko dira txostenaren hirugarren kapituluari. Hizkuntza-aniztasuna ez da homogenea Erreterriako auzoetan, ez hizkuntza-kopuruari dagokionean, ez eta hiztun-kopuruari dagokionean ere. Badira 20 jatorri-estatuak hiztunak jatorri atzerriarreko biztanleriaren

% 87,1 osatzen dutenak; jatorri-estatu horietako hamar hizkuntzek baino gehiagok 50 baino hiztun gehiago izan ditzakete Erreterrian.

Baina, bestalde, badira beste 65 jatorri-estatutako hiztunak, biztanleria migratzailearen % 12,9 osatzen dutenak. Beraz, 70 hizkuntza inguru izan dezakete presentzia Erreterrian.

Hizkuntza-aniztasunerako hurbilketa honetan kontuan izan dira, era berean, gaztelaniaz gain beste hizkuntzak hitz egiten diren Espainiar Estatuko erkidegoetan jaio eta Erreterrian bizi diren biztanleen datuak ere.

Txostenaren laugarren kapituluari hizkuntza-komunitate handienek Erreterriako auzoetan hartzen duten kokapena aurkeztuko da. Azkenik, ondorioen atala eskainiko da.

OHAR METODOLOGIKOA

Gaur egun, ez dago biztanleek hitz egiten dituzten hizkuntzen inguruko datu-bilketa zehatza egiteko prozedura formal edo protokolorik, EUSTATEk euskarari eta gaztelaniari buruz egiten duenaz gain. Ondorioz, ez dago ziurtasunez jakiterik Erreneriako biztanleek zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Galdera horri erantzuteko, beraz, ikerketa kualitatibo e-mailtezi erreparatzea ezinbestekoa da.

Ez dira asko esparru horretan egindako lanak, baina oso kontuan izango dira txosten honetan, besteak beste honakoak: Ahotsak, 2016; Ikuspegi (Uranga et al. 2008), (Aierdi eta Uranga 2018), Ikuspegi 2019, 2020); Emakunde, 2012; Fernández Aragón et al., 2017 eta Aztiker, 2015.

Lan honetan erabilitako datuen iturri nagusia Erreneriako Udalak eskainitako *Biztanleriaren udal-errolda* (2020) izan da.

Azterketa honetan jatorri atzeritarreko biztanletzat honako hiru ezaugarriren bat duten biztanle guztiak aintzat hartu direla: a) *Espanian jaio eta atzeritarra*¹ izatea; b) *atzerrian jaio eta espainiarra*, eta c) *atzerrian jaio eta atzeritarra* izatea. Hori horrela, eta ikerketa kualitatiboek berresten dutenaren

baldintzapean, azterketa honetan erabili diren hipotesiak ondorengoak dira:

- Jatorri atzeritarreko biztanleek jatorri-herrialdeetako hizkuntza ofizialak hitz egiten d(it)u(z)te.
 - Espero izatekoa da hizkuntza ofizial horretan² hitz egingo dutela, jatorrizko hizkuntza beste bat(zuk) d(it)u(z)tenen kasuetan ere. Halere, ez da beti horrela izaten, alegia, biztanle guztiek ez dute beti estatuaren hizkuntza ofiziala hitz egiten jakiten.
- Jatorrizko herrialdeetan hizkuntza ofizialez gain hitz egin de(it)zaketen hizkuntza(k) ere identifikatu behar d(ir)a.
 - Hizkuntza horien identifikazioan, dagoeneko hizkuntzen presentzia dokumentatuta dituzten hizkuntzak hartu dira kontuan³.
- Gaztelaniaz gain beste hizkuntza bat hitz egin dezaketen Espainiako beste autonomia erkidego batzuetan jaio eta Errenerian bizi diren biztanleen datuak ere kontuan izango dira.

¹ Ikerketa honetan atzerria kategoria Espainia kanpoko estatuei esleitzen zaie; atzeritar Estatu espainiarreko nazionalitatea ez duten biztanleei.

² Estatu askotan hizkuntza ofizial bat baino gehiago dago, eta euren presentzia lurraldean ez da ezinbestean homogeneous. Beraz, jatorri

lurralde bakoitzaren ezaugarri soziolinguistikoen arabera hitz egingo dute hizkuntza batzuk edo beste batzuk Erreneriara etorritako biztanleek.

³ Uranga et al. 2008, Ikuspegi 2015, Topagunea 2016, Emakunde 2018, ...

2 JATORRI ATZERRITARREKO BIZTANLERIAREN EZAUGARRIAK ERRETERIAN

2.1 GIZA TALDEAK, JAIOTERRIAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA

Hizkuntza-aniztasuna aztertzeko jatorri atzerritarreko biztanleria aztertuko da, bereziki bi datu gurutzatuz: biztanleen jaiotze-estatua eta nazionalitatea. Hala, datuen azterketarako lau giza talde bereizi daitezke:

1. *taula. Biztanleriaren giza multzoak, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera*


Nazionalitate espainiarra Estatu Espainiarrean jaioak	+	-
+	a) Espainian jaio eta nazionalitate espainiarra	b) Espainian jaio eta atzerriko nazionalitatea
-	c) Atzerrian jaio eta nazionalitate espainiarra	d) Atzerrian jaio eta atzerriko nazionalitatea

Kontuan izan behar da, beraz, azterketa honetan jatorri atzerritarreko biztanleak b, c eta d taldeko biztanleak direla, alegia, *Espainian jaio eta atzerriko nazionalitatea* dutenak, *atzerrian jaio eta nazionalitate espainiarra* dutenak eta *atzerrian jaio eta atzerriko nazionalitatea* dutenak.

1. grafikoa. Biztanleria, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera. Erreterria, 2020

Erreterriako biztanleen artean 4.555ek osagai atzerriarra dute, (biztanleria osoaren 11,5). Arestian esan bezala, horien artean ezaugarri desberdinetako hiru talde biltzen dira.

- Talde handiena atzerrian jaio eta Espainiako nazionalitate ez duten biztanleek osatzen dute (d taldea: 2.853 biztanle).
- Espainian jaio arren, espainiar nazionalitate ez duten biztanleek % 0,8ko taldea osatzen dute (b taldeko 331 pertsona).
- Atzerrian jaio arren, espainiar nazionalitatea dutenak 1.371 biztanle dira (c taldea).




Iturria: Erreterriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Grafikoa SLK.

a) Espainian jaio eta nazionalitate espainiarra	34.938	% 88,5
Jatorri atzerriarra (b+c+d)	4.555	% 11,5
b) Espainian jaio eta atzerriko nazionalitatea	331	% 0,8
c) Atzerrian jaio eta espainiarra	1.371	% 3,5
d) Atzerrian jaio eta atzerriarra	2.853	% 7,2
Biztanleria guztira	39.493	% 100,0

2.2 JATORRI ATZERRITARREKO BIZTANLERIA, SEXUAREN ARABERA

2.2.1 Datu orokorrak: migrazioaren feminizazioa

2. grafikoa. Biztanleriaren jatorria, sexuaren arabera.
ERRENTERIA, 2020 (%)



Iturria: Errenteriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Grafikoa SLK.

	Espainiar jatorria		Jatorri atzerritarra		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emakumezkoak	18.019	51,6	2.373	52,1	20.392	100,0
Gizonezkoak	16.919	48,4	2.182	47,9	19.101	100,0
GUZTIRA	34.938	100,0	4.555	100,0	39.493	

Biztanleriaren sexu-banaketari dagokionean, puntu erdiko aldea dago Espainiar jatorriko eta jatorri atzerritarreko biztanleriaren artean (Espainiako jatorria duten emakumeak % 51,6, jatorri atzerritarrekoak % 52,1).


Azpimarragarria da, ordea, alde nabarmenak ikus daitezkeela sexuaren arabera banaketan jatorriaren zein den kontuan hartuta.

ERRENTERIAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN MAPA

Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren arabera hurbilketa


Amerikako jatorria duen biztanleriaren artean, 430 emakume gehiago dira gizonezkoak baino (2020. urtean). Aldiz, Afrika, Asia eta Europako jatorria dutenen artean, gizonak gehiago dira: Afrikan jatorria 197 gizonezko gehiagok; Asian 20, eta Europan 38 gizonezko gehiagok.

4. grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleen feminizazioa (emakumeak gizonak baino gehiago), herrialdeen arabera. Errenteria, 2020 (Abs.)



Iturria: Errenteriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Grafikoa SLK.

3. grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleen feminizazioa (emakumeak gizonak baino gehiago), kontinenteen arabera. Errenteria, 2020 (Abs.)



Iturria: Errenteriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Grafikoa SLK.


Amerikatik datorren migrazio-populazioaren artean feminizazioa nabarmena da: esate baterako, Hondurasetik eta Nikaragutatik heldutako biztanleen artean, 125 eta 113 emakume gehiago dira gizonezkoak baino.

Aitzitik, alde handiarekin dira gehiago gizonezkoak Afrikatik eta Asiatik datozenen artean; bereziki maskulinoagoa da Marokon eta Pakistanen jatorria duten biztanleen artean (109 eta 40 gizonezko gehiago emakuimezko baino, hurrenez hurren).

2.2.2 Banaketa sexuaren arabera, auzoka

Erreterriako auzotan jatorri atzerriarrek biztanleriaren banaketak kontuan izateko feminizazioa erakusten du. Esate baterako, Alaberga, Lartzabal, Igantzi eta Berauneko auzoetan, emakumezkoen proportzioa handiagoa da gizonezkoena baino.

5. grafikoa. Jatorri atzerriarrek biztanleriaren feminizazioa auzoka. Erreterria, 2020 (%)



	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztiak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Alaberga	62	37,8	102	62,2	202	100,0
Lartzabal	20	40,0	30	60,0	90	100,0
Igantzi	58	44,3	73	55,7	175	100,0
Beraun	228	46,1	267	53,9	541	100,0
Erdigunea	410	46,5	472	53,5	928	100,0
Kaputxinoak	250	47,4	277	52,6	574	100,0
Besteak	26	48,1	28	51,9	102	100,0
Olibet-Etxeberrieta	78	48,1	84	51,9	210	100,0
Iztieta-Ondartxo	294	48,4	314	51,6	656	100,0
Gabierrota	89	49,2	92	50,8	230	100,0
Gaztaño	32	50,0	32	50,0	114	100,0
Galtzaraborda	373	50,1	371	49,9	794	100,0
Pontika	55	51,4	52	48,6	158	100,0
Agustinak	183	53,0	162	47,0	398	100,0
Fanderia	24	58,5	17	41,5	100	100,0
GUZTIRA	1.975	47,9	2.194	52,1	2.023	100,0

Iturria: Erreterriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Grafikoa SLK.


2.3 JATORRI ATZERRITARREKO BIZTANLERIA, ADINAREN ARABERA

2.3.1 Datu orokorrak

Errenteriako hamasei urte arteko biztanleriaren artean, % 89k bertako jatorria du eta % 11k jatorri atzerritarra. Jatorri atzerritarreko biztanleriaren ehunekoa, ordea, handiagoa da 17 eta 24 urteko (% 16,6) eta 25 eta 44 urte bitarteko biztanleriaren artean (% 23,3).

Aldiz, 45 eta 64 urte arteko proportzioa txikiagoa da (% 9,2), eta are txikiagoa adineko biztanleriaren artean; izan ere, 65 urtetik gorako biztanleriaren artean jatorri atzerritarreko biztanleria % 1,9 da. Ondorioz, bi ezaugarri nabarmendu behar dira jatorri atzerritarreko biztanleen artean: 25-44 urte arteko biztanleria aktiboaren proportzio handia, eta 65 urtetik gorako biztanleriaren presentzia urria.

6. grafikoa. Biztanleriaren adin-banaketa jaitorriaren arabera. Errenteria, 2020 (%)




Iturria: Errenteriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Grafikoa SLK.

	0-16	17-24	25-44	45-64	>65
Espainiar jatorria	5.300 (% 89,0)	2.540 (% 83,4)	6.833 (% 76,7)	11.405 (% 90,8)	8.860 (% 98,1)
Jatorri atzerritarra	655 (% 11,0)	506 (% 16,6)	2.075 (% 23,3)	1.150 (% 9,2)	169 (% 1,9)
Guztira	5.955	3.046	8.908	12.555	9.029

2.3.2 Banaketa sexuaren arabera, auzoka

Erreterriko auzotan jatorri atzeritarreko biztanleriaren banaketak, kontuan izateko adinaren arabera banaketa erakusten du.

7. grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren adin-banaketa. Erreterria, AUZOAK, 2020 (%)



Iturria: Erreterriko Biztanleriaren udal-errola (2020). Grafikoa SLK.

Esate baterako, 25-44 urteko proportzioak nabarmen handiagoak dira Iztietia-Ondartxo (% 37,2), Igantzi (% 37,3) eta Kaputxinoak (% 32,8) auzotan. Era berean, gazteen proportzioak ere oso kontuan hartzekoak dira, ez soilik horietan, baizik eta, baita, Alabergan (% 25,6), Iztietia-Ondartxo (% 26,4), Igantzi (% 28,0), Kaputxinoak (% 22,5) eta Galtzaraborda (% 23,1) auzoetan ere.

ERRETERIAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN MAPA

Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren arabera hurbilketa

Taula. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren adin-banaketa. Erreteria. AUZOAK, 2020 (Absolutuak; %)

	0-16		17-24		25-44		45-65		>65		GUZTIRA	
	Abs	%	Abs	%	Abs	%	Abs	%	Abs	%	Abs	%
Fanderia	4	1,6	7	2,9	15	7,6	12	1,6	3	1,7	41	2,5
Gaztaño	11	4,7	7	14,0	26	9,7	18	6,5	2	2,0	64	6,9
Lartzabal	2	1,3	7	14,0	17	8,0	19	9,0	5	6,4	50	7,0
Besteak	8	6,5	6	9,0	26	18,2	10	3,7	4	2,7	54	7,2
Agustinak	45	5,7	32	11,7	147	14,1	115	9,9	6	1,1	345	9,0
Beraun	81	10,7	58	15,6	219	19,6	113	7,3	24	1,4	495	9,1
Pontika	19	11,3	8	12,1	49	23,1	21	6,5	10	2,7	107	9,4
Erdigunea	103	8,1	108	14,6	413	20,7	229	7,3	29	1,4	882	9,5
Olibet- Etxeberrieta	32	16,1	21	21,4	64	20,5	41	9,5	4	1,0	162	11,2
Alaberga	25	12,1	23	25,6	76	24,1	34	8,6	6	2,8	164	13,4
Gabierrota	31	17,0	9	10,7	80	29,3	56	13,9	5	1,5	181	14,2
Galtzaraborda	123	17,4	87	23,1	344	30,7	163	12,2	27	2,5	744	16,2
Kaputxinoak	63	15,1	58	22,5	248	32,8	139	13,3	19	2,8	527	16,7
Igantzi	22	20,2	14	28,0	72	37,3	23	10,8	-	-	131	17,8
Iztietia- Ondartxo	86	21,9	61	26,4	279	37,2	157	14,7	25	2,6	608	17,9
GUZTIRA	655	11,0	506	16,6	2.075	23,3	1.150	9,2	169	1,9	4.555	11,5

Iturria: Erreterriako Biztanleriaren udal-errola (2020).

3 ERRETERIAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNA JATORRIAREN ARABERA

Erreterriako hizkuntza-aniztasunera hurbiltzeko biztanleriaren jatorria aztertu da bi aldagai kontuan izanda: *jatorri atzeritarreko biztanleak* eta *gaztelaniaz gain beste hizkuntza koofizialak dituzten Espainiako Autonomia Erkidegoetan jaioetako biztanleak*.

3.1 JATORRI ATZERITARREKO BIZTANLEEN JATORRI-HERRIALDEAK

Jatorri atzeritarreko biztanleek 85 estatu desberdinetan dute euren jatorria; horietatik % 87,1ek 20 estatutan, eta gainerako % 12,9k 65 estatutan.

8. grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleak, 20 jatorri-estatu nagusien eta gainerakoen banaketaren arabera. ERRETERIA, 2020 (Abs.; %)



Beraz, hurbilketa honetan jada, Erreterriako hizkuntza-aniztasuna azaltzeko lehen bereizketa egin daiteke, aurreikus baitaiteke 20 jatorri horietako biztanleen hizkuntzek izango dutela bereziki pisuzko presentzia Erreterriako udalerrian.

Horiekin batera, gainerako 65 herrialde baino gehiagotan jatorria duten biztanleen artean hizkuntza-aniztasun oso handia dagoela aurreikusi daiteke.


Iturria: Erreterriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Grafikoa SLK.

3.2 EMARI HANDIENEN 20 JATORRI-ESTATUAK

Erreterian hiztun-kopuru handiena izan ditzaketen hizkuntzak hogeitaz estatuak dute jatorria. Jatorri horietako biztanleak atzeritarren artean % 87,1 osatzen dute.

Emari gehien duten estatuak Maroko, Honduras, Kolonbia, Nikaragua, Ekuador, Errumania eta Portugal dira (200 biztanletik gora). Ondorengoek 50 eta 200 arteko biztanle-kopuruak dituzte: Kuba, Ukraina, Nigeria, Frantzia, Peru, Aljeria, Argentina, Venezuela, Bolivia, Pakistan, Txina, Brasil eta Dominikar Errepublikak.

9. grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleak, 20 jatorri-estatu nagusiak kontuan hartuz. Erreteria, 2020 (%)




Iturria: Erreteria Biztanleriaren udal-errola (2020). Grafikoa SLK.

Jatorri-estatuak		Abs.	%
1	Maroko	681	15,0
2	Honduras	429	9,4
3	Kolonbia	406	8,9
4	Nikaragua	359	7,9
5	Ekuador	255	5,6
6	Errumania	221	4,9
7	Portugal	205	4,5
8	Kuba	161	3,5
9	Ukraina	158	3,5
10	Nigeria	144	3,2
11	Frantzia	125	2,7
12	Peru	125	2,7
13	Aljeria	105	2,3
14	Argentina	99	2,2
15	Venezuela	96	2,1
16	Bolivia	94	2,1
17	Pakistan	88	1,9
18	Txina	86	1,9
19	Brasil	68	1,5
20	Dominikar Errepublika	63	1,4
20 estatutan jatorria		3.968	87,1
65 estatutan jatorria		587	12,9
GUZTIRA		4.555	100,0

3.3 HIZTUN-KOPURU TXIKIKO JATORRI-ESTATUAK

Erreterian badira beste 65 estatu ingurutan jatorria duten biztanleak. Estatu horietan jatorria dutenek immigratutako populazioaren % 12,9 osatzen dute. Horien artean nabarmentzekoak dira Mexiko, Italia, Ekuatore Ginea, Senegal eta Alemania: 30eta 50 biztanle-kopuru arteko prestentzia dute udalerrian. Gainerako jatorritakoek kopuru txikiagokoak dira. Horrez gain, azpimarratzekoa da badirela Erreterian jatorri bereko biztanle bakarreko ia hoge estatuko biztanleak.

10. grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleak, 50 biztanle baino gutxiago dituztenak. Erreteria, 2020 (Abs.)




Iturria: Erreteriaiko Biztanleriaren udal-errola (2020). Grafikoa SLK.

3.4 ESPAINIAKO ESTATUAN JATORRIA DUTENAK

Errenteriako hizkuntza-aniztasunaren alderdi aipagarria da gaztelaniaz gain beste hizkuntza koofizialak dituzten Espainiar estatuko beste Autonomi Erkidegoetan jaio eta Errenterian bizi diren biztanleak. Jatorri horien arabera, aipagarria da, beraz, udalerrian bizi diren biztanleen artean galegoz, katalanez, asturieraz edo aragoieraz hitz egin dezaketen biztanleak badirela (871, 227, 108 eta 88, hurrenez hurren).

11. grafikoa. Biztanleria, Estatu espainiarreko jatorriaren arabera. Errenteria, 2020 (Abs. %)



	Abs.	%
EAE	26.782	67,8
Nafarroa	571	1,4
Galizia	871	2,2
Asturias	108	0,3
Aragoi	88	0,2
Katalunia, Valentzia, Balear Uharteak	227	0,6
Estatu espainiarreko gainerakoak	6.291	15,9
Jatorri atzerritarra	4.555	11,5
GUZTIRA	39.493	100,0

Iturria: Errenteriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Grafikoa SLK

3.5 Erreenterian hitz egin daitezkeen hizkuntzak

Jatorri-estatuko hizkuntza ofiziala(k) kontuan izanda, eta jatorri horietako beste zenbait hizkuntzaren presentzia esanguratsua izan dezaketela aurreikusiz, honakoak dira Erreenterian hitzun-kopuru handiena izan ditzaketen hizkuntzak:

Arabiera, amazigera	Jatorria: Maroko eta Aljeria
	681 eta 105 biztanle, hurrenez hurren. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren % 17,3
Portugesa	Jatorria: Portugal eta Brasil
	205 eta 68 biztanle, hurrenez hurren. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren % 7
Errumaniera	Jatorria: Errumania
	221 biztanle. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren % 5,6
Ukrainera	Jatorria: Ukraina
	158 biztanle. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren % 3,5.
Jorubera, igboera, hausa, ingelesa	Jatorria: Nigeria
	144 biztanle. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren % 3,2
Frantsesa (bretoiera, okzitania, katalana, euskara...)	Jatorria: Frantzia
	125 biztanle. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren % 2,7.
Urduera eta punjabera	Jatorria: Pakistan
	88 biztanle. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren % 1,9
Mandarin txinera eta kantonera	Jatorria: Txina
	86 biztanle. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren % 1,9.

Biztanle-kopuru txikiagoko hizkuntzen artean 50 biztanle azpiko taldeak daude; esate baterako, Europako zenbait estatutako ofizialak (italiera, aleman, italiera, errusiera, bulgariera...).

Ondoren, jatorri-kontinente bakoitzeko jatorrietatik Errenteriara heldu ei diren hizkuntzen behin-behineko hurbilketa eskaintzen da.

EUROPA

aleman, armeniera, bielorrusiera, bosniera, bulgariera, errusiera, eslovakiera, georgiera, hungariera, ingeles, italiera, letoniera, moldaviera, norvegiera, nederlandera, poloniera, suediera.

Lurralde horietan hizkuntza minorizatuak diren beste batzuk ere izan daitezke: erromantxea,, flandesera, frisia, galesera, Eskoziako edo Irlandako gaelikoa.

AMERIKA

Aimara, guaraniera, ketxua, kitxua...

Amerikako jatorriko hizkuntzen presentzia kontuan hartzekoa da ez soilik Erdi eta Hego Amerikan, baizik eta gerta daiteke Ipar Amerikako jatorrizko herrietako hizkuntzek ere presentzia izatea EAEn, nahi ez den dokumentatu oraindik.

AFRIKA

Akanera, amarhera, bubiera, diolera, ewera, fang,, fula, ga,, Bissauko kreolera,, mandinkera, moorea, pulaarera, sekiera, serer, soninkera, soninkera, sothoera, susu, swahili, swaziera,, turkiera, umbundu, wolofera, xhosera, Maurizioko kreolera.

Arreta bereziarekin begiratu behar da, Kontinente horretako estatu gehienek Europako jatorria duten hizkuntza ofizialak dituztela (ingeleza, frantsesa, portugesa, nederlandera edo gaztelania).

ASIA

hindi, japoniera, kazakhera, koreera, mongoliera, persiera, punjabera, vietnamera, besteak beste.


OZEANIA

tagalo

3.6 GAZTELANIA OFIZIALA DUTEN JATORRI-HERRIALDEAK

Atzeritar jatorriko biztanleriaren jatorri-estatuen arabeko hizkuntza-aniztasuna deskribatzeko kontuan izan behar da biztanle horien artean leku bereziki handia hartzen duela jatorri estatuan gaztelania ofiziala dutenek⁴. Erreterian jatorri atzeritarreko biztanleriaren % 47,9k gaztelania du ofiziala jatorrian. Azpimarragarria da, oso ohikoa dela jatorri horietako biztanleak gaztelaniaz elebakarrak izatea, baina, kontuan izan behar da badirela horien artean batzuk, gaztelaniaz gain, beste hizkuntza batzuk ere hitz egiten dituztenak, esate baterako, aimara, guarania, mapudunguma, ketxua edota kitxua, besteak beste.

12. grafikoa. Gaztelania ofiziala duten jatorri-herrialdeetako biztanleak, jatorri atzeritarreko biztanleria guztiarekiko. Erreteria. AUZOAK. 2020(%)



	Gaztelania ofiziala jatorrian		Gainerako jatorri atzeritarra dutenak		Guztira	
	Abs	%	Abs	%	Abs	%
Agustinak	102	29,6	243	70,4	345	100,0
Alaberga	92	56,1	72	43,9	164	100,0
Beraun	269	54,3	226	45,7	495	100,0
Besteak	26	48,1	28	51,9	54	100,0
Erdigunea-Centro	470	53,3	412	46,7	882	100,0
Fanderia	15	36,6	26	63,4	41	100,0
Gabierrota	90	49,7	91	50,3	181	100,0
Galtzaraborda	291	39,1	453	60,9	744	100,0
Gaztaño	23	35,9	41	64,1	64	100,0
Igantzi	80	61,1	51	38,9	131	100,0
Iztietia-Ondartxo	280	46,1	328	53,9	608	100,0
Kaputxinoak	289	54,8	238	45,2	527	100,0
Lartzabal	14	28,0	36	72,0	50	100,0
Olibet-Etxeberrieta	94	58,0	68	42,0	162	100,0
Pontika	47	43,9	60	56,1	107	100,0
GUZTIRA	2.182	47,9	2.373	52,1	4.555	100,0

Iturria: Erreteria Biztanleriaren udal-errola (2020). Grafikoa SLK

⁴ Ikus txosten honen hasierako ohar metodologikoan, jatorri-estatuen hizkuntza-aniztasunaren ezaugarriak aztertzei ikerketan erabilitako irizpideak.


4 HIZKUNTZA KOMUNITATE NAGUSIEN PLANOAK

Aurreko atalean, Erreterriko biztanleek hitz egin ditzaketen hizkuntzak identifikatu dira haien jatorria aintzat hartuta. Atal honetan, hizkuntza-komunitate nagusien mapak osatuko dira, auzoen banaketa erreferentziazat hartuta.

4.1 JATORRI ATZERRITARREKO BIZTANLEEN PRESENTZIA, AUZOAREN ARABERA

Jatorria atzerrian duten Erreterriko bost biztaletik bat Erdigunean bizi da (% 19,4, 882 biztanle). Gainerako auzoetan gutxiago kokatu dira: Galtzaraborda % 16,3, Iztietia-Ondartxon % 13,3 eta Kaputxinoetan % 11,6. Auzo horietan jatorri atzerritarreko 500 eta 900 biztanle artean bizi dira. Aldiz, Fanderian, Lartzabalen, Landalurrean eta Gaztalon, jatorri atzerritarreko biztanleriaren presentzia nabarmen urriagoa da.

1. **mapa: Jatorri atzerritarreko biztanleriaren banaketa. Erreterria. AUZOAK. 2020 (Abs.)**



Iturria: Erreterriko Biztanleriaren udal-errola (2020). Mapa SLK

	Jaioterri atzerritarra	Jatorri atzerritarrekiko (%)
Erdigunea	882	19,4
Galtzaraborda	744	16,3
Iztietia-Ondartxo	608	13,3
Kaputxinoak	527	11,6
Beraun	495	10,9
Agustinak	345	7,6
Gabierrota	181	4,0
Alaberga	164	3,6
Olibet-Etxeberrieta	162	3,6
Igantzi	131	2,9
Pontika	107	2,3
Gaztaño	64	1,4
Landalurra	54	1,2
Lartzabal	50	1,1
Fanderia	41	0,9
GUZTIRA	4.555	100,0


ERRENTERIAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN MAPA

Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren arabera hurbilketa

Auzoko biztanleriaren arabera, ordea, Iztieta-Ondartxo, Igantzi, Kaputxinoak eta Galtzaraborda auzoetan nabari dira jatorri atzeritarreko dentsitate handienak (% 17,9 eta % 17,8, % 16,7 eta % 16,2, hurrenez hurren).

Aldiz, Fanderia, Gaztañon eta Landagunean jatorri atzeritarreko biztanleriaren dentsitatea nabarmen txikiagoa da.

2. *mapa: Jatorri atzeritarreko biztanleriaren banaketa, auzoaren arabera. Erreterria, AUZOAK. 2020 (%)*



Iturria: Erreterriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Mapa SLK

	Auzoko jatorri atzer.	Auzoko biztanleria	Auzoko bizt.kiko (%)
Iztieta-Ondartxo	608	3.392	17,9
Igantzi	131	735	17,8
Kaputxinoak	527	3.150	16,7
Galtzaraborda	744	4.597	16,2
Gabierrota	181	1.279	14,2
Alaberga	164	1.223	13,4
Olibet-Etxeberrieta	162	1.452	11,2
Erdigunea	882	9.257	9,5
Pontika	107	1.133	9,4
Beraun	495	5.463	9,1
Agustinak	345	3.817	9,0
Landalurra	54	751	7,2
Lantzabal	50	710	7,0
Gaztaño	64	924	6,9
Fanderia	41	1.610	2,5
GUZTIRA	4.555	39.493	

4.2 HIZKUNTZA-KOMUNITATE NAGUSIEN DENTSITATEA, AUZOAREN ARABERA


4.2.1 Arabiera eta amazigera (Maroko eta Aljeria)

Marokon eta Aljerian jatorria duten 786 biztanle bizi dira egun Erreenterian. Arabierak jatorrian duen presentziagatik, pentsa daiteke Erreenterian ere jatorri horietako biztanleek hitz egingo dutela. Horrez gain, kontuan izan behar da, oso ohikoa dela Euskal Herrira heldu direnek arabierarekin batera amazigeraz ere hitz egitea.

Bi lurralde horietan jatorria duten populazioaren gehiengo nabarmena Galtzarabordan, Erdigunean eta Iztieta-Ondartxo auzotan bizi da. Baina, Agustinetan, Kaputxinoan eta Beraunen ere, hizkuntza horietan hitz egin dezaketen 70 eta 100 biztanletik gora bizi dira.

3. *mapa. Arabierako eta amazigerako hiztunak (jatorria Marokon eta Aljerian). Erreenteria. AUZOAK. 2020 (Abs.)*

	Arabiera, amazigera (Maroko Aljeria)	Jaioterri atzerritarra	Biztanleria osoa	Jaioterri atzerritarre kiko (%)
Galtzaraborda	155	744	4.597	20,8
Erdigunea	135	882	9.257	15,3
Iztieta- Ondartxo	126	608	3.392	20,7
Agustinak	96	345	3.817	27,8
Kaputxinoak	88	527	3.150	16,7
Beraun	70	495	5.463	14,1
Alaberga	29	164	1.223	17,7
Olibet- Etxeberrieta	28	162	1.452	17,3
Pontika	23	107	1.133	21,5
Igantzi	17	131	735	13,0
Gabierrota	11	181	1.279	6,1
Lartzabal	5	50	710	10,0
Landalurra	2	54	751	3,7
Fanderia	1	41	1.610	2,4
Gaztaño	0	64	924	0,0
GUZTIRA	786	4.555	39.493	17,3




Iturria: Erreenteria Biztanleriaren udal-errola (2020). Mapa SLK

4.2.2 Errumaniera (Errumania)

Erreterriako 221 biztanlek dute Errumanian jatorria. Horietatik erdia Agustinetan, Galtzarbordan eta Erdigunean bizi dira. Aldiz, Errumaniako jatorria dutenak Pontikan, Alabergan, Lartzabalen, Gaztañon eta Fanderian oso gutxi dira.

4. *mapa. Errumanian jatorria duten biztanleak. AUZOAK. Erreterria, 2020 (Abs.)*



Iturria: Erreterriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Mapa SLK

	Errumaniera (Errumania)	Jaioterri atzerritarra	GUZTIRA	Jaioterri atzerritarr ekiko (%)
Agustinak	42	345	3.817	12,2
Galtzaraborda	39	744	4.597	5,2
Erdigunea	27	882	9.257	3,1
Beraun	24	495	5.463	4,8
Gabierrota	18	181	1.279	9,9
Kaputxinoak	14	527	3.150	2,7
Igantzi	13	131	735	9,9
Iztieta-Ondartxo	13	608	3.392	2,1
Landalurra	12	54	751	22,2
Olibet-Etxeberrieta	6	162	1.452	3,7
Pontika	4	107	1.133	3,7
Alaberga	3	164	1.223	1,8
Lartzabal	3	50	710	6,0
Gaztaño	2	64	924	3,1
Fanderia	1	41	1.610	2,4
GUZTIRA	221	4.555	39.493	4,9

4.2.3 Portugesa (Brasil eta Portugal)

Portugalen edo Brasilen jatorria duten 273 lagun daude erroldan izena emanda, egun, Erreterian; horietatik gehienak Galtzaraboradan, Kaputxinoak eta Iztieta-Ondartxon daude. Aldiz, Alaberga, Igantzi, Gaztaño eta Pontikan oso gutxi dira jatorrian portugesa ofiziala duten biztanleak, eta beraz, hizkuntza horren presentzia nabarmen txikiagoa da.

	Portugesa (Brasil, Portugal)	Jaioterri atzerritarra	GUZTIRA	Jaioterri atzerritarreki ko (%)
Galtzaraborda	51	744	4.597	6,9
Kaputxinoak	39	527	3.150	7,4
Iztieta-Ondartxo	36	608	3.392	5,9
Beraun	32	495	5.463	6,5
Erdigunea	32	882	9.257	3,6
Agustinak	18	345	3.817	5,2
Lartzabal	15	50	710	30,0
Fanderia	9	41	1.610	22,0
Gabierrota	9	181	1.279	5,0
Landalurra	8	54	751	14,8
Olibet-Etxeberrieta	6	162	1.452	3,7
Pontika	6	107	1.133	5,6
Gaztaño	5	64	924	7,8
Igantzi	5	131	735	3,8
Alaberga	2	164	1.223	1,2
GUZTIRA	273	4.555	39.493	6,0

5. *mapa. Portugesa hiztun potentzialak (jatorria Brasilen eta Portugalen). Erreteria. AUZOAK. 2021 (Abs.)*



Iturria: Erreteria Biztanleriaren udal-errola (2020). Mapa SLK

4.2.4 Ukrainera (Ukraina)

Ukrainerarekin batera Euskal Herrira heldu diren Ukrainan jatorriko biztanleek errusieraz ere hitz egin ohi dute. Guztira 158 lagun dira Erreterian bizi direnak; Galtzarabordan, Iztieta-Ondartxon eta Kaputxinoan daude bereziki. Gainerako auzotan oso urria da euren presentzia.

6. mapa. Ukrainera hiztun potentzialak (jatorria Ukraina) AUZOAK.
Erreteria, 2020 (Abs.)



	Ukrainera (Ukraina)	Jaioterri atzerritarra	GUZTIRA	Jaioterri atzerritarrekiko (%)
Galtzaraborda	41	744	4.597	5,5
Iztieta-Ondartxo	27	608	3.392	4,4
Kaputxinoak	23	527	3.150	4,4
Agustinak	15	345	3.817	4,3
Beraun	15	495	5.463	3,0
Erdigunea	12	882	9.257	1,4
Alaberga	10	164	1.223	6,1
Gabierrota	9	181	1.279	5,0
Pontika	4	107	1.133	3,7
Gaztaño	1	64	924	1,6
Olibet-Etxeberrieta	1	162	1.452	0,6
Landalurra	-	54	751	-
Fanderia	-	41	1.610	-
Igantzi	-	131	735	-
Lartzabal	-	50	710	-
GUZTIRA	158	4.555	39.493	3,5


Iturria: Erreteria-ko Biztanleriaren udal-errola (2020). Mapa SLK

4.2.5 Jorubera, igboera, hausa eta ingelesa ... (Nigeria)

Nigeriako jatorria duten biztanleak Erreterian 144 dira. Horietatik gehienak Galtzaraborda auzoan bizi dira (46 biztanle). Gainerakoak, oso banatuta aurkitzen dira Erdigunean eta beste auzo batzuetan.

7. *mapa.Nigerian jatorria duten biztanleak, jatorri atzerritarreko eskualdeko biztanleria guztiarekiko. Erreteria. AUZOAK. 2021 (Abs)*

	Nigeria	Jaioterri atzerritarra	GUZTIRA	Jaioterri atzerritarrekiko (%)
Galtzaraborda	46	744	4597	6,2
Erdigunea	14	882	9257	1,6
Beraun	12	495	5463	2,4
Agustinak	11	345	3817	3,2
Iztietia-Ondartxo	10	608	3392	1,6
Kaputxinoak	10	527	3150	1,9
Pontika	10	107	1133	9,3
Igantzi	8	131	735	6,1
Gabierrota	7	181	1279	3,9
Gaztaño	7	64	924	10,9
Alaberga	5	164	1223	3,0
Olibet-Etxeberrieta	4	162	1452	2,5
Landalurra	-	54	751	-
Fanderia	-	41	1610	-
Lartzabal	-	50	710	-
GUZTIRA	144	4555	39493	3,2




Iturria: Erreterriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Mapa SLK

4.2.6 Frantsesa (Frantzia)

Errenteriako biztanleriaren artean 125 lagunek dute jatorria Frantzian. Gehienak Erdigunean bizi dira, nahiz eta Beraunen eta Galtzarabordan ere badauden. Aurreko kasuan bezala, gainerako guztiak oso banatuta daude Errenteriako auzo desberdinetan.

8. *mapa. Frantses hiztun potentzialak (jatorria Frantzian AUZOAK. Errenteria, 2020 (Abs.)*

	Frantsesa (Frantzia)	Jaioterri atzerritarra	GUZTIRA	Jaioterri atzerritarrekiko (%)
Erdigunea	33	882	9257	3,7
Beraun	21	495	5463	4,2
Galtzaraborda	18	744	4597	2,4
Agustinak	13	345	3817	3,8
Iztietia-Ondartxo	7	608	3392	1,2
Kaputxinoak	6	527	3150	1,1
Gabierrota	5	181	1279	2,8
Alaberga	4	164	1223	2,4
Fanderia	4	41	1610	9,8
Lartzabal	4	50	710	8,0
Olibet-Etxeberrieta	4	162	1452	2,5
Landalurra	3	54	751	5,6
Gaztaño	2	64	924	3,1
Pontika	1	107	1133	0,9
Igantzi	-	131	735	-
GUZTIRA	125	4555	39493	2,7




Iturria: Errenteriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Mapa SLK

4.2.7 Urdu eta punjabera (Pakistan)

Pakistanen jatorria duten biztanleak 88 dira Erreterian. Horien artean gehienak Iztietan eta Galtzarabordan bizi dira. Gainerako auzotan oso gutxi dira jatorri horretako biztanleak. Euskal Herrira heldutako jatorri horretako biztanleen artean oso ohikoa da urduaz gain punjaberaz ere hitz egitea.

9. *mapa. Pakistanen jatorria duten biztanleak, jatorri atzeritarreko. AUZOAK. Erreteria, 2020 (Abs.)*



	Urdu eta punjabera (Pakistan)	Jaioterri atzer.	GUZTIRA.	Jaioterri atzeritarrekiko
Iztietan-Ondartxo	35	608	3.392	5,8
Galtzaraborda	29	744	4.597	3,9
Beraun	5	495	5.463	1,0
Kaputxinoak	5	527	3.150	0,9
Erdigunea	4	882	9.257	0,5
Alaberga	3	164	1.223	1,8
Lartzabal	2	50	710	4,0
Olibet-Etxeberrieta	2	162	1.452	1,2
Pontika	2	107	1.133	1,9
Igantzi	1	131	735	0,8
Agustinak	-	345	3.817	-
Landalurra	-	54	751	-
Fanderia	-	41	1.610	-
Gabierrota	-	181	1.279	-
Gaztaño	-	64	924	-
GUZTIRA	88	4.555	39.493	1,9


Iturria: Erreterriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Mapa SLK

4.2.8 Mandarin txinera, (Kantonera)

Txinan dute jatorria Erreterian bizi diren 86 biztanlek. Horien artean gehienak Erdigunean bizi dira. Gainerako auzoetan oso gutxi dira jatorri horretako biztanleak. Euskal Herrira heldutako jatorri horretako biztanleen artean oso ohikoa da Mandarin txineraz gain, kantonera era hitz egiten jakitea.

	Mandarin txinera, kantonera (Txina)	Jaioterri atzerriarra	GUZTIRA	Jaioterri atzerriarrekiko (%)
Erdigunea	44	882	9.257	5,0
Olibet-Etxeberrieta	10	162	1.452	6,2
Gaztaño	9	64	924	14,1
Beraun	6	495	5.463	1,2
Iztietia-Ondartxo	4	608	3.392	0,7
Fanderia	3	41	1.610	7,3
Gabierrota	3	181	1.279	1,7
Agustinak	2	345	3.817	0,6
Lartzabal	2	50	710	4,0
Alaberga	1	164	1.223	0,6
Galtzaraborda	1	744	4.597	0,1
Kaputxinoak	1	527	3.150	0,2
Landalurra	0	54	751	0,0
Igantzi	0	131	735	0,0
Pontika	0	107	1.133	0,0
GUZTIRA	86	4.555	39.493	1,9

10. mapa. Txinan jatorria duten biztanleak, jatorri atzerriarreko. AUZOAK. Erreteria, 2020 (Abs.)




Iturria: Erreteria Biztanleriaren udal-errola (2020). Mapa SLK

4.3 LABURPENA

Ondorengo grafikoak irudikatzen du jatorri atzeritarreko biztanleriaren artean hiztun-kopuru handiena izan dezaketen hizkuntzen banaketa, auzoaren arabera.

13. grafikoa. Jatorri-estatuak eta biztanleak (hiztun potentzialak). (Jatorrian gaztelania ofiziala ez dutenak) Erreteria. AUZOAK. 2020 (Abs.)



Iturria: Erreterriako Biztanleriaren udal-errola (2020). Mapa SLK

Ikus daitekeen bezala bi joera desberdin nabarmendu behar dira:


- Jatorri atzeritarreko biztanle-kopuru altueneko auzoak: Erdigunea, Galtzaraborda, Iztieta-Ondaretxo, Kaputxinoak, Beraun eta Agustinak. Bertan, jatorri atzeritarreko hizkuntzen presentzia esanguratsua aurreikus daiteke.
- Aldiz, nabarmen txikiagoa da jatorri atzeritarreko hizkuntzak hitz egin ditzaketen biztanleen presentzia Gabierrotan, Olibeten, Alabergan, Pontikan Igantzín, Lartzabalen Gaztañon, Landalurrean eta Fanderian.

4.4 HIZTUN-KOPURU TXIKIKO HIZKUNTZA-ANIZTASUN HANDIA

Hiztun-kopuru txikiko -oso txikikoa kasu askotan- 60 hizkuntza inguru izan daitezke Erreterian. Ondoko grafiko honetan ikus daiteke 65 jatorri-estatuaren kopuruak kontuan izanda, biztanleen auzoko banaketa.

14. grafikoa. Jatorri estatu-kopuruak eta biztanleak (hiztun potentzialak). Erreteria. AUZOAK (2020)

Jatorriaren estatu-kopurua / biztanleak



	Jatorri lurraldeak	Jatorri atzerritarreko biztanleak	Biztanleak
Erdigunea	58	882	9.257
Galtzaraborda	49	744	4.597
Iztieta-Ondartxo	43	608	3.392
Kaputxinoak	43	527	3.150
Agustinak	42	345	3.817
Beraun	40	495	5.463
Alaberga	29	164	1.223
Gabierrota	29	181	1.279
Pontika	27	107	1.133
Olibet-Etxeberrieta	25	162	1.452
Gaztaño	24	64	924
Igantzi	24	131	735
Fanderia	18	41	1.610
Lartzabal	16	50	710
Landalurra	15	54	751
GUZTIRA	85	4.555	39.493

Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2020). Grafikoa SLK.

5 ONDORIOAK

Erreterian erroldatuta dauden biztanleen jatorria aztertuta, udalerrian egon daitekeen hizkuntza-aniztasuna ondorengo da: Galegoa hitz egin dezaketen biztanleak 800 biztanletik gora dira; Katalan hitzunak, bestalde, 200 biztanletik gora. Asturiera edo aragoiera hitz egin dezaketen biztanleak ere badira Erreterian, Asturiasen eta Aragoin jaiotako 108 eta 88 erroldatuta baitira bertan, hurrenez hurren.

Jatorri atzeritarreko biztanleriaren artean, biztanle-kopuru handieneko hizkuntzak izan daitezkeenak honakoak dira:

- Arabiera edota amazigera hitz egin dezaketen 786 biztanlee (Maroko eta Aljeria jatorria dutenak). Hizkuntza horien presentzia, beraz, oso esanguratsua aurreikus daiteke. Era berean, jatorri horretako biztanle gehienek frantsesa ere hitz egiten dute, hizkuntza horrek jatorriko gizartean, eta, bereziki hezkuntza sisteman duen presentziagatik.
- Portugesa hitz egin dezaketen biztanleek Portugalen edo Brasilen dute euren jatorria. 273 biztanle. Horietako batzuk beste jatorrizko hizkuntzak ere hitz egin ditzakete.
- Errumaniera hitzunak 221 biztanletik gora izan daitezke; errumanian jatorria duten biztanleek beste hizkuntza batzuk ere hitz egin dezakete, hala nola, errusiera.
- Ukrainera hitz egin dezaketen biztanleak 158 dira Erreterian. Nabarmenezkoa da, oro har, jatorri horretako biztanleek errusiera ere hitz egiten dutela.
- Jorubera, igboera, hausa, fula eta ingelesa dira Nigerian hizkuntza ofizialak. Horrez gain ordea, hizkuntza-aniztasun oso handia dago estatu horretan, eta, beraz, horiez gain beste hizkuntza batzuk ere hitz egin ditzakete Nigerian jatorria duten Erreteriarako ia 150 lagunek.
- Frantsesa hitz egiten dute Frantzia jatorria duten Erreteriarako 125 biztanleek. Horiez gain, kontuan izan behar da Afrikako zenbait lurraldetan jatorria duten biztanle ugari ere frantses (ere) hitz egiten dutela euren jatorriko estatuko hizkuntza ofiziala delako, esate baterako, ondorengo estatuetan jatorria dutenak: Kongo, Boli Kosta, Benin, Burkina Faso, Burundi, Ekuatore Ginea, Gabon, Ginea, Mali, Senegal, Togo, Txad. Horrez gain, kolonizazioaren eraginez, gizartean duen presentzia soziala medio, beste estatu batzuetako jatorriko biztanleek ere frantses hitz egiten dute, Aljeria eta Marokoren kasuetan bezala.

Era berean, Suitza, Belgika edota Monakoko jatorria duten biztanleak ere frantses hitzunak izan daitezke, herrialde horietan ofiziala delako, behintzat euren lurraldearen parte batean.

Azkenik, aipatu behar da frantziar jatorria duten biztanleen artean, frantsesez gain beste hizkuntza batzuetan ere hitz egiten dutenak ere badirela, hala nola, bretoieraz, okzitanieraz, katalanez, alemanez eta korsikeraz.

- Mandarin txinera edota kantonera, Txina jatorria dutenak, 86 lagun dira Erreenterian, eta horien artean, beste hizkuntza batzuk ere hitz egin ditzaketela aurreikus daiteke.
- Urdua hitz egiten duten Pakistan jatorriko biztanleek ere presentzia nabarmena dute Erreenterian. Zehazki, 88 biztanle dira. Urdua eta ingelesa hizkuntza ofizialak direnez Pakistanen, oro har, biztanle horiek ingelesez ere hitz egin ohi dute. Horrez gain, Euskal Herrira heldu direnen artean gehienak Punjab eskualdeko biztanleak direlako oso ohikoa da punjaberaz ere hitz egitea.

Arestian aipatutakoak dira jatorri atzerritarreko hizkuntza-komunitate nagusiak. Hizkuntza horiez gain, ordea, beste 60 hizkuntza ingururen presentzia egon daiteke Erreenterian, biztanleek beste 65 estatutan dutelako jatorria. Hizkuntza horien artean daude, besteak beste, Europako hizkuntza ofizialak (alemana, armeniera, bielorrusiera, bosniera, bulgariera, errusiera, eslovakiera, georgiera, hungariera, italiara, letoniera, moldaviera, norvegiera, nederlandera, poloniera, suediera, eta ez ofizialak (erromantxea, flandesera, frisia, galesera edota Eskoziako edo Irlandako gaelikoa, besteak beste); Amerikan jatorria duten guarania, kitxua, ketxua, aimara; Afrikatik etorri diren akanera, amarhera, bubiera, diolera, ewera, fang, fula, ga, Bissauko kreolera, mandinkera, moorea, pulaarera, sekiera, serer, soninkera, soninkera, sothoera, susu, swahili, swaziera, turkiera, umbundu, wolofera, xhosea, Maurizioko kreolera, besteak beste. ASIAtik hindi, japoniera, kazakhera, koreera, mongoliera, persiera, vietnamerae, eta OZEANIAtik tagaloa.

Hizkuntza-kudeaketaren aldetik oso kontuan izatekoa da, jatorrian gaztelania ofiziala duen populazioak leku eta presentzia berezia duela Euskal Autonomi Erkidegoan bezala, Erreenterian ere: 2.182 biztanle dira orotara, jatorri atzerritarreko biztanleriaren ia erdia (% 47,9). Nolanahi ere, kontuan izatekoa da gaztelaniaz gain biztanleria horren artean Amerikako jatorria duten hizkuntzak ere hitz egiten dituztela. Horien artean aimara, guarania, mapudungum, ketxua, kitxua eta nahuatlera.

Azkenik, aipa daiteke Erreenteriako auzoen artean bi eredu argi nabari direla. Alde batetik, jatorri- eta hizkuntza-aniztasun oso handia dutenak (Galtzaraborda, Erdigunea, Iztieta-Ondartzo, Agustinak, Kaputxinoak, Beraun) eta, aldiz, aniztasun txikiagoa dutenak. Horien artean, Gabierrota, Olibet-Etxeberrieta, Alaberga, Pontika, Igantzi, Lartzabal, Gaztaño, landalurra, eta Fanderia. Hizkuntza-aniztasunaren kudeaketaren aldetik, oso kontuan hartzeko ezaugarria da hori.

ETORKIZUNeko ERRONKA

Txosten honetan *Erreterriako Hizkuntza-aniztasunaren mapa, immigrazioko biztanleriaren arabeko hurbilketa* egin da. Gogoratu behar da ikerketaren diseinuan bertan euskararen, gaztelaniaren eta ingelesaren presentziaren azterketa saihestu dela, lehen bi kasuetan hizkuntza koofizialak direlako EAEn, eta ingelesak, hezkuntza-sistema formalean eta ez formalean pisu esanguratsua duelako; beraz, horiek tratamendu berezitua eskatzen dute.

Hizkuntza-aniztasunerako hurbilketa egin dugula diogu, gaur egun ez dagoelako biztanleriaren hizkuntza-datu zehatzak biltzen dituen prozedura formal edo protokolorik, EUSTAT-ek euskarari eta gaztelaniari buruz egiten duenaz gain (metodologia atalean zehaztu den bezala). Ondorioz, ez dago ziurtasunez jakiterik Erreterriako biztanleek zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Galdera horri erantzuteko, beraz, ikerketa kualitatiboak edo datu-bilketa sistematikoak ezinbestekoak dira. Ikerketa horiek egin bitartean, eskuragarri dauden datuek hizkuntza-aniztasunaren fenomenora hurbiltzea, soilik hipotesi-mailan ahalbidetzen dute, eta hala egin da, esan bezala, txosten honetan. Beraz, garrantzi berezia du hipotesi horiek baieztatu edo zuzenduko dituen ikerketak egitea.

Alde batetik, interesgarria litzateke euskararen eta gaztelaniaren kasuan egiten den moduan, EUSTATEk Demografia Inkestan edo Biztanleriaren eta Etxebiziten Zentsuan gainerako hizkuntzen inguruko oinarritzko informazioa biltzeko galderak integratzea, edota Udalek erroldatze-prozesuan informazio-mota hori biltzeko modua egitea. Eta aldi berean, ikerketa kualitatibo zabalak egitea komenigarria da, aurreikusitako hizkuntzen presentzia sakonago ezagutzeko. Etorkizuneko erronka garrantzizkoa izan daiteke hori zalantzarik gabe.

Sortzen eta biltzen ari den hizkuntza-aniztasunaren inguruko ezagutza baliatu dadila hizkuntza horien guztien aitortza egiteko, eta, euskararentzat dagokion kokapena ziurtatzeko.

BIBLIOGRAFIA

- Ahotsak.eus. 2016. *101 ELE Lenguas Langues Languages*. Eibar. <https://101l.ahotsak.eus/hizkuntzak/>.
- Aierdi, Xabier, eta Belen Uranga. 2018. «Gipuzkoako Hizkuntza-aniztasunaren mapa. Azterketa eta proposamenak». Soziolinguistika Klusterra.
- Oleaga, José Antonio. 2012. «Integrazioa, EAErekin identifikatza eta etorkizuneko proiektuak». In *Atzerriko emakume etorkinak EAEn*. Gasteiz: Emakunde.
- Shershneva, Julia, eta Iraide Fernández Aragón. 2017. «Familiak eta aniztasuna Euskadin (0-25 urte)». In *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak*, 723-96. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua-Ikuspegi. https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigacion/eus/gazte_aniztasuna/P3_CAP3_familiaEUS.pdf.
- Uranga, Belen, Xabier Aierdi, Itziar Idiazabal, Estibaliz Amorrortu, Andoni Barreña, eta Ane Ortega. 2008. *Hizkuntzak eta Immigrazioa. Lenguas e Inmigración*. Bilbo: Ikuspegi, Amarauna - UNESCO Etxea.
-